

Araugintza II. ikastaroa



2. saioa Sintaxia

Arauen laburpena
Ohiko akatsak

Ariketak



EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092



Aurkibidea

Sintaxi arauak. Ariketa orokorra.....	3
SINTAXIA: ARAUEN LABURPENA	5
Bait-	5
Partitiboaren erabilera okerra.....	5
“Izan ezik”	5
“- (e)z gero”	6
“Ongi etorri!”.....	6
“Egiteko asmoz”	6
“Komunztadura aposizioetan”	7
“Izen sintagmen arteko juntadura dela eta”	8
Zehar-galdera orokorretako aditz-atzizkia: -eN eta -eNETZ	9
-eLAKO eta -eN atzizkiak, izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan	9
ARAUAK: ARIKETAK	10
Bait-	10
“Ba-” eta “-(e)z gero”	12
Ezik / izan ezik / ez ezik... ere	13
-eLAKO eta -eN atzizkiak, izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan	13
Komunztadura aposizioetan	14
Izen sintagmen arteko juntadura dela eta.....	15
OHIKO AKATSAK: TEORIA	16
OHIKO AKATSAK: ARIKETAK	20
Ezer, inor, deus... + EZ partikula.....	20
Zenbait erdarakada	21
“Hobe, hobeki (hobeto)” formen erabilera	22
ERE lokailuaren erabilera	22



Sintaxi arauak. Ariketa orokorra

Aukera ezazu erantzun zuzena. Gogoan izan bakarria hautatu behar duzula

1. *Zein da zuzena?*

- a) Ez itxaron afaltzeko, berandu etorriko baitnaiz.
- b) Atzo etxean gelditu ginen, eguraldi kaskarra egin baitzuen mendirako.
- c) Oinez etorri behar izan dugu, dirurik gabe gelditu baigara.

2. *Zein da zuzena?*

- a) Zu ezik, bertze guztiak inguratu ziren.
- b) Zu izan ezik, bertze guztiak hurbildu ziren.
- c) Zu ezezik, bertze guztiak ere inguratu ziren.

3. *Zein **EZ** da zuzena?*

- a) Eguerdiko hamabiak ezker, asper-asper eginda egon gara zure zain kale kantoiko tabernan.
- b) Eguerdiko hamabiez gero, asper-asper eginda egon gara zure zain kale kantoiko tabernan.
- c) Zerbait egitea erabaki ezker, neu ere laguntzeko prest izango nauzue.
- d) Zerbait egitea erabakiz gero, neu ere laguntzeko prest izango nauzue.

4. *Hiru aukera hauetatik, zein modu da egokiena hitzaldi bati hasiera emateko?*

- a) Jaun-andreok, ongi etorriak!
- b) Jaun-andreok, ongi etorri!
- c) Ongi etorriak, jaun-andreok!

5. *Hauetan, zein **EZ** da zuzena?*

- a) Argi eta garbi hitz egiteko asmotan etorri gara.
- b) Argi eta garbi hitz egiteko asmoz etorri gara.
- c) Argi eta garbi hitz egin asmoz etorri gara.



6. *Euskaltzaindiak emaniko arauen arabera, zein **EZ** da zuzena euskaraz?*
- a) Unibertsitateko errektoreorde Edurne Mendizabalek aurkeztu du txostena.
 - b) Unibertsitateko errektoreordea Edurne Mendizabalek aurkeztu du txostena.
 - c) Nire lagun Edurne Mendizabalek, Unibertsitateko errektoreordeak, aurkeztu du txostena.
7. *Zein da zuzena?*
- a) Amari, aitari eta aitonari deitu diete osasun-etxetik.
 - b) Zu eta Mikelekin joango nintzateke afaltzera.
 - c) Gurasoak eta lagunez mintzatu zitzaigun.
8. *Zein **EZ** da zuzena?*
- a) Begira iezaiozu ongi ea ezer berririk ikusten diozun.
 - b) Begira iezaiozu ongi ea ezer berririk ikusten diozunetz.
 - c) Begira iezaiozu ongi ea ezer berririk ikusten diozunentz.
9. *Zein **EZ** da zuzena?*
- a) Dagoeneko galdu dut berriro elkar ikusiko dugulako itzaropena.
 - b) Dagoeneko galdu dut berriro elkar ikusiko dugularen itzaropena.
 - c) Dagoeneko galdu dut berriro elkar ikusiko dugun itzaropena.



SINTAXIA: ARAUEN LABURPENA

Bait-

(2. araua, 11. or.)

Bait- partikula beti aditzari lotua idatziko da, dagokion aldaketa grafikoa eginez.

- Bait- + d-> **bait-:** baitator, baitoa, baita, baitugu...
- Bait- + n-> **bain-:** bainator, bainoa, bainenbilan...
- Bait- + h-> **baih-:** baihator, baihoa, baihengoen...
- Bait- + l-> **bail-:** bailetorke, bailitzateke...
- Bait- + g-> **baik-:** baikinen, baikentzen...
- Bait- + z-> **baitz-:** baitzetorren, baitzuen...

Ez idatzi bereiz: **bai gara, *bait gara, *bait naiz, *bai luke*, etab.

Partitiboaren erabilera okerra

(15. araua)

Erabil bedi partitiboa euskaraz, beti erabili izan den moduan, hau da, artikulurik gabe (lagunik, lanik, ahuntzik, e.a.) eta pluralik gabeko komunztadura eginez aditzarekin (dugu, dute, genuen, e.a.).

“Izan ezik”

(16. araua, 111. or.)

“*Salbu*” esanahia adierazteko, izen-sintagmari *izan ezik* erantsiko zaio eta ez *ezik* bakarrik. Aurrean doan sintagmak dagokion kasu-marka hartuko du:

- § *Debekatuta dago autobusentzat eta taxientzat izan ezik.*
- § *Teologiaz izan ezik, beste edozertaz solas egin dezakezu Mariarekin.*

Izen-sintagmak ergatiboa hartu behar duenean, absolutu kasua erabiltzea ere zilegi da:

- § *Zuk izan ezik, beste guztiek horixe egingen lukete.*
- § *Zu izan ezik, beste guztiek horixe egingen lukete.*



“(e)z gero”

(26. araua, 143. or.)

- Aditzaren ostean, beti **-(e)z gero** idatziko da: *Hori eginez gero; hori egin dugunez gero.*
- Orduekin eta bestelako denbora postposizioetan, **ezkero** ere erabil daiteke: *Hamarrez gero edo hamarrak ezkerro, Sanferminez gero edo Sanferminak ezkerro, atzoz gero edo atzo ezkerro.*
- “*Honezkerro, horrezkerro eta harrezkerro*” aditzondoak honela idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura tradizioan, nahiz *horrezkerro* aditzondoaren maiztasuna beste biena baino askoz ere apalagoa den.

“Ongi etorri!”

(33. araua, 175. or.)

Oles edo agur egiterakoan, euskararen tradizioari jarraituz, **ongi etorri!** erabiliko da (eta ez *ongi etorria* edo *ongi etorriak*): **Ongi etorri, adiskide eta lankide maiteak!**

Honek ez du esan nahi *ongi etorri* hitza izen bihurtzen bada eta mugatzailea hartzen badu, honela esan ezin daitekeenik: **Alkateak ongi etorria eman die** edo **Zaretela (izan zaitzeltela) ongi etorriak!**

“Egiteko asmoz”

(41. araua, 219. or.)

Asmoa edo xedea adierazteko **asmo** hitza erabiltzen dugunean, **-T(Z)EKO** nominalizazioa erabiliko dugu aditzean, eta ez partizipio burutua:

Hitz egiteko, eztabaidatzeko, irakurtzeko asmoz (asmotan, asmoarekin) etorri gara.

Ez dira ontzat ematen, beraz, **joan asmoz, *egin asmoz, *eztabaidatu asmoz...* bezalako formak.



“Komunztadura aposizioetan”

(109. araua, 1071. or.)

a) Aposizioa izen sintagmaren barneko izenen artean egiten denean ez da komunztadura arazorik sortzen, hondarkia ez baita sintagma osoaren azken buruan baizik ageri:

- *Unibertsitateko errektoreorde Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena.*
- *Edurne Mendiluze Unibertsitateko errektoreordeari aurkeztu diote txostena.*

Horrelakoetan, bistan da, lehen izenak ez daramala mugatzailearik:

- *Unibertsitateko errektoreorde(*a) Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena.*

Mugatzailea izenaren beraren osagai egina duten izen bereziek, ordea (*Benedikto XVI.a, Antso Azkarra* edo *Pernando Amezketarra* bezalakoek, alegia), gorde egiten dute mugatzailea aposizioan ere:

- *Benedikto XVI.a Erromako Aita Santuak (*Benedikto XVI. Erromako Aita Santuak).*
- *Antso Azkarra errege ausartari (*Antso Azkar errege ausartari).*
- *Pernando Amezketarra bertsolari ezagunaren ibilerak (*Pernando Amezketar bertsolari ezagunaren ibilerak).*

b) Izen sintagma osoak aposatzen direnean, berriz, komunztadura egitea da ohikoena, hondarkia sintagma aposatuetan ere jarritz:

- *Nire lagun Ferminnek, piano jotzaile trebeak, kontzertu asko eman ditu aurten.*
- *Fermin Garro irakasleari, lizentziadun berri denari, eman diote lanpostu hori.*
- *Zure lagunarekin, Unibertsitateko irakaslearekin, mintzatu naiz gaur.*

Komunztadurarik gabeko aposizioak lekukotasun urriagoa du tradizioan, batez ere perpaus barruan kokatua dagoenak, eta, hortaz, ez da gomendatzekoa:

- ?? *Nire lagun Ferminnek, piano jotzaile trebea, kontzertu asko eman ditu aurten.*
- ?? *Fermin Garro irakasleari, lizentziadun berri dena, eman diote lanpostu hori.*
- ?? *Zure lagunarekin, Unibertsitateko irakaslea, mintzatu naiz gaur.*

Zenbaitetan, perpausaren joskeratik aparteko eranskin edo tarteki aske gisa ematen da bigarren sintagma eta ez sintagma aposatu gisa. Areago gertatzen da etenak, tartekiak eta horrelakoak maiz samar dituen euskara mintzatuan, jardun egituratuagoa izan ohi duen idatzian baino. Horrelakoetan, jakina, benetako aposiziorik ez dagoenez, ez da komunztadura egiten.

Errazago onartzen dira horrelakoak, tarteki izaera argia denean:

- *Gure herriko alkateak -musikazale amorratua bera- begi onez ikusi du kontzertu gela berria egiteko proiektua.*
- *Haren etxean -aski zabala, ene ustez- erraz kabituko gara denok.*
- *Datorren larunbatean -hilak zortzi- hasiko da ehiza garaia.*



“Izen sintagmen arteko juntadura dela eta”

(111. araua, 1081. or.)

Izen sintagmen arteko komunztadura dela eta, tradizioko erabilerak kontuan harturik, Euskaltzaindiak ARAU hauek ematen ditu euskara baturako:

- a) Kasu-marka bera dakarten sintagmak beti junta daitezke:
 - *Bilboko jokalariek eta Bermeoko arraunlariek batzarra egin dute.*
 - *Zuri, niri eta beste askori gertatu zaigu.*
 - *Zure etxeaz eta gure lanbide berriaz mintzatu dira.*
 - *Baionatik, Bilbotik eta Gasteiztik omen datoz ikasle horiek.*
- b) Pertsona izenordainak elkartzen direnean, beti erantsi behar da kasu-marka:
 - *Zuk eta guk egingo dugu* (eta ez **zu eta guk egingo dugu*).
 - *Niri, zuri eta beste lagunei gertatu zaigu* (eta ez **ni, zu eta beste lagunei gertatu zaigu*).
 - *Gutaz eta zuetaz mintzo dira* (eta ez **gu eta zuetaz mintzo dira*).
- c) Halaber, singularreko sintagmetan, kasu-marka eranstea gomendatzen da:
 - *Itsasoan eta lehorrean bizi diren narrastiak.*
 - *Eskuz eta palaz jokatzten du.*
 - *Amarekin eta amamarekin bizi da.*

Juntatzen diren izenak oso hurbilekoak direnean, edo izenlagunaz nahiz izenondoaz lagundurik doazenean, ardatz anitzeko sintagma osa daiteke, kasu-marka amaieran ezarriz:

- *Gorputz eta arimatik atera den oihua.*
 - *Bere emazte eta alabari galdetu zien.*
- d) Pluraleko sintagmetan aukeran izaten da guztiei kasu-marka jarri edo amaieran soilik jarri:
 - *Itsaso, mendi eta basamortuetan ibili da.*
 - *Maite ditut lagun eta ahaideak.*
 - *Adiskide eta lankideei kontatu diet.*
 - *Meatze eta lantegietatik atera den oihua.*
 - *Maite ditut eguzki, zeru eta izarrak.*
 - e) Determinatzailea duten kasu-markarik gabeko izen sintagmak ezin junta daitezke kasu markadun sintagma batekin:
 - * *Mendia eta itsasotik heldu da ura.*
 - * *Adiskideak eta lagunez mintzatu zara.*
 - * *Burua eta zangoei behatu nien.*
 - * *Gizon hau eta emakume hark esango dizute.*

Genitibodun sintagmetan ere ez da zilegi sintagma mugatu soila eta genitiboko sintagma juntatzea:

- * *Ikastolak eta gobernuaren arteko bilerak.*
- * *Irakaslea eta ikaslearen arteko harremana.*



Zehar-galdera orokorretako aditz-atzizkia: -eN eta -eNETZ

(115. araua, 1111. or.)

a) Zehar-galdera guztietan bezala, zehar-galdera orokorretan ere aditzak *-eN* forma hartzen du, eta aski da atzizki hura zehar-galdera ongi osatzeko, nahiz harekin batean *ea* edo *ote* bezalako beste zenbait indargarri ere erabil daitekeen:

- *Ez dakit zuzen mintzatu naizen.*
- *Galdetzera noa ea norbait azaldu den.*

b) Halere, zehar-galdera orokorreko aditzari atzizki indargarria erantsi nahi bazaio, anbiguetaterik sortzen ez duen *-enetz* atzizkia erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak euskara baturako:

- *Begira iezaiozu ongi ea gaitzik ageri duenetz.*
- *Ez dakit ikusi dugunetz.*

-eLAKO eta -eN atzizkiak, izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan

(116. araua, 1113. or.)

... hau da Euskaltzaindiaren erabakia izenak gobernatzen dituen perpaus osagarri jokatueta erabili beharreko atzizkiez:

Ø *Aitzakia, albiste, berri, damu, esperantza, froga, hitz, iritzi, irudipen, itxaropen, itxura, kezka, konfiantza, kontu, marka, promesa, seinale, sentimendu, susmo, uste, zantzu, zurrumurru...* eta horrelako izenek gobernatzen dituzten perpaus osagarrietan *-eLAKO* eta *-eN* atzizkiak erabiliko dira euskara batuan:

Ø *Ekonomia gaizki doalako* berriak ez gintuzke harritu behar.

- § *Ameriketara joan zen han hobeto biziko zelako* ustean.
- § *Berriro elkar ikusiko dugulako* esperantza ez dut galdu.
- § *Maite gaituztelako* seinale da egin diguten harrera beroa.
- § *Berriro elkar ikusiko dugun* esperantza ez dut galdu.
- § *Maite gaituzten* seinale da egin diguten harrera ona.

Ø Baina euskara batuan ez da egoki perpaus osagarrietan *-eLAREN*, *-eNEKO* edo *-eNAREN* atzizkiak erabiltzea, ez baitute literatur tradizioan aski den adinako lekukotasunik. Beraz, gisa honetako perpausok ez dute lekurik euskara batuan:

- § **Ekonomia gaizki doalaren* berriak ez gintuzke harritu behar.
- § **Ameriketara joan zen han hobeto biziko zelaren* ustean.
- § **Maite gaituztenaren* seinale da egin diguten harrera ona.



SINTAXIA: ARIKETAK

Bait-

A. Berridatzi esaldiok

1) Mugi zaitezte! Bestela berandu iritsiko zarete eta.

_____ bai(t)_____ .

2) Ez aipatu horrelakorik, bestenaz negarrez hasiko naiz eta.

_____ bai(t)_____ .

3) Ikusi bezain laster eman zion, momentuaren zain zegoen eta.

_____ bai(t)_____ .

4) Aitatxi-amatxiak ikustera joan beharko genuke, poztuko lirateke eta.

_____ bai(t)_____ .

5) Azkenean eroriko gara, irristaka gabiltza eta.

_____ bai(t)_____ .

6) Hartu pelikularako sarrerak, ikusteko irrikaz gaude eta.

_____ bai(t)_____ .

7) Ez negar gehiago egin, arazoa konponduko duzu eta.

_____ bai(t)_____ .

8) Afari goxoa prestatu, goseak amorratzen daude eta.

_____ bai(t)_____ .

9) Esnatu behingoz! Zortzi eta erdiak dira eta.

_____ bai(t)_____ .

10) Gaitutuko duzu, hainbesteko lana egin eta gero merezi duzu eta.

_____ bai(t)_____ .



B. Berridatz itzazu esaldi hauek “BAIT-“ partikulaz baliatuz

1. Ezin izanen diot erran, ez dakit **non dagoen eta**.
2. Nik neuk ez dut ezertxo ere esan, **ez naiz hemengoa eta**.
3. Ez daukate deus erran beharrik, **dagoeneko ondo asko dakigu zer erranen duten eta**.
4. Ez genien dirurik eman behar izan, **bazeukaten eta**.
5. Ez duzu zertan azalpenik eman, **badakite zer jazo den eta**.
6. **Autobusa hartzeko dirurik ez neukanez**, oinez etorri behar izan dut.
7. Ezin izan diogu deus erran, **zeren gu hara heltzerako, alde egin duen**.
8. On Joxe Miel Barandiaran, **zeina munduko antropologorik onenatarikoa izan den**, Ataunen jaio zen.
9. Koldo Mitxelena, **zeinari euskarak eta euskaldunok ezin esan ahala zor diogun**, oso argi mintzatu zen gai honen gainean.
10. Han goian bada herrixka bat **non geratzen diren guztiek laurogei urtetik gora daukaten**.
11. Hain nengoen urduri, **non ezin izan nuen hitzik ere esan**.
12. Honen nekatuta nago, **ezen ez dudan afaldu ere eginen**.
13. Hain zen ederra eta dotorea, **ezen liluratuta utzi gintuen**.



“Ba-” eta “-(e)z gero”

Berridatz itzazu ondoko esaldiak

1. **Ongi lo eginez gero**, lan ere ongi egiten dut.
2. Nahiago nuke arazoaren mamia **zeuok azaltzea** sendi osoari.
3. Nahiago dut zuek etxera **joatea**.
4. Pozik joanen nintzateke Donibane Garazira, **jaiegunak izanen banitu**.
5. Gustura igaroko genuke uda Zarautzen, **eguraldiak lagunduz gero**.
6. **Zerbait jakinez gero**, esango liguke.
7. **Etortzen bazara**, emanen dizut; bestela, ez.
8. **Nire aginduak bete ezean**, pikutara joanen zaigu egitasmo osoa.
9. **Hala nahi izanez gero**, denok batera sar gintezke.
10. **Nahi izan ezik**, ez da deus lortzen.
11. **Neuk ikusi ezean**, ez nukeen sinetsiko.
12. Utziko dizkizut etxeko giltzak; baina, **heldu den asteen bertan itzultzekotan**.
13. **Zaratarik ez ateratzekotan**, geldi zaitezke hemen; bestela, hanka hemendik!
14. **Denok ez biltzekotan**, hobe dugu bilera beste baterako uztea.
15. **Goizaldeko bostetarako etortzez gero**, trenez egin beharko dugu bidaia.
16. **Hainbeste ardo edanda**, mozkortu egingen ginатеke.
17. **Zuk erranda**, aise sinetsiko lukete.
18. **Erran dizudana egin behar duzu**, bestela alfer-alferrik zaude hemen.
19. **Giroa baretu ezean**, nekez lortuko dugu bat etortzea.



Ezik / izan ezik / ez ezik... ere

Euskara itzazu esaldi hauek goiko hiru egitura horietakoren batez baliatuz

1. No sólo necesitaremos las cosas del bolso, sino también las que hemos dejado en el coche.
2. Excepto los domingos, venimos todos los días a trabajar.
3. Si no recibo ayuda, no podré terminar el trabajo para pasado mañana.
4. No sólo comerás esto, también comerás todo lo demás.
5. Salvo los días de lluvia, siempre vamos andando al trabajo.
6. De no estar seguro del todo, es mejor no decir nada.
7. Tanto Irati como todos los demás, han actuado mal.
8. Si no estás de acuerdo con todo esto, es mejor que lo dejes cuanto antes.
9. Menos los de Jon, asistieron todos los padres a la reunión.
10. No sólo Josu, también nos vinieron todos los demás.

–eLAKO eta –eN atzizkiak, izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan

A. Aukeratu erantzun zuzenak

1. Aita gaizki zegoelaren / zegoen / zegoelako berria izan nuen ostegunean.
2. Zurekin nabilelako / nabilen susmoa hartu dute etxean.
3. Laguntzeko prest zegoen, borondate ona duenaren seinale.
4. Amaia etxera bueltatu zeneko berria zabaldu zen.
5. Etsiko duen / duenaren / dueneko ustea badu berak ere.
6. Handi-mandi horren menpe bizi naizelaren / naizelako / naizen sentimendua dut.
7. Irtengo zara sartu zinelaren / zinelako / zinen damuaz.
8. Azkarregi zihoan berantegi helduko zelaren / zelako / zen beldurrarekin.



B. Itzuli

- 1) Tengo la sospecha de que me estás mintiendo.
- 2) Se ha corrido la voz de que te ha tocado la lotería.
- 3) Penélope fue la primera que oyó la noticia de que había vuelto Ulises.
- 4) No pierdo la esperanza de que algún día viva sin trabajar.
- 5) Estos últimos años ha perdido fuerza la hipótesis de que el euskara viene de África.
- 6) ¿Quién ha difundido el rumor de que el Príncipe se ha separado de Letizia?
- 7) Empezó a tocar el tambor con la confianza de que fuera más fácil que el arpa.
- 8) Me vino con la excusa de que se le había muerto la abuela... y tiene 72 años.

Komunztadura aposizioetan

Berridatzi bi modutan (edo gehiagotan)

1. **Osasunako entrenatzaile Kuko Zigandari** emaitza ona iruditu zaio igandeko berdinketa.
 - _____
 - _____
 - _____
 - _____
2. **Espainiako Estatistika Institutua den INEk** eskaintako datuen arabera, joan den hiruhilekoan langabezia tasak behera egin zuen Hego Euskal Herrian.
 - _____
 - _____
 - _____
3. **Tigre ehizan** liburuaren egile **Aingeru Epaltza nafarrarekin** bat nator hainbat iritzitan.
 - _____
 - _____
 - _____



Izen sintagmen arteko juntadura dela eta...

A. Itzuli

1. Cenaremos con todos estos: con Mikel, contigo y con todos esos que ves ahí.
2. Lo ha pintado de rojo y de verde.
3. Invitaremos a compañeros de trabajo y a compañeros de estudio.
4. Has hablado de nosotros y de tus amigos.
5. Te lo dirán este hombre y aquella mujer.
6. El corazón y la cabeza me dicen que debo hacer eso.
7. Las reuniones entre las ikastolas y el gobierno han dado pocos frutos.
8. Las relaciones entre el profesor y el alumno son cada vez más difíciles.
9. ¡Nos tenía que pasar a ti y a mí!

B. Zuzendu akatsak

1. Denoi tokatu zaigu loteria: zuek, gu eta gure lagun guztiei.
2. Zuk eta nik ez dugu batere gogoko jendaurrean hitz egitea.
3. Nafarroako Unibertsitate Publikoko fakultate eta eskola teknikoetan matrikulazioak gora egin du.
4. Gizon hau eta emakume horrek ikusi zaituzte ihesi.
5. Ogi eta esnearen salneurriek gora egin dute.



OHIKO AKATSAK: TEORIA

Ezer, inor, deus... + EZ partikula

Zenbaitetan, inguruko hizkuntzen eraginez, *ezer*, *inor* eta antzeko formak **EZ** partikularik gabe erabiltzen dira ezezko esanahiarekin. Adibidez:

*ZER esan duzu? EZER	ZER esan duzu? EZER EZ
*NORK deitu du? INORK	NORK deitu du? INORK EZ
*ZER nahi duzu? DEUS	ZER nahi duzu?DEUS EZ
*NORA joanen zara? INORA	NORA joanen zara?INORA EZ
*NOREKIN egon da?INOREKIN	NOREKIN egon da?INOREKIN EZ

Forma hauei ezezko balioa emateko, ezinbestekoa da **EZ** partikula gehitzea.

Beste zenbaitetan, berriz, kontrakoa egiten da; hau da, **EZ** partikula birritan errepikatzea. Ikus dezagun erabilera oker honen zenbait adibide:

*Nik EZ dut EZER EZ (ezebez) esan	Nik EZ dut EZER (ere) esan
*EZ dugu EZER EZ (ezebez) ulertu	EZ dugu EZER (ere) ulertu
*EZ da INOR EZ etorri	EZ da INOR (ere) etorri

Zenbait erdarakada

1. Ez da oso egokia *hor nonbait* esapidearen ordeztu, *hortik* eta antzeko erdarakadak erabiltzea. Adibidez:

* <i>Umea HORTIK ibiliko da.</i>	<i>Umea HOR (NONBAIT) ibiliko da.</i>
* <i>HORTIK egongo dira.</i>	<i>HOR (NONBAIT) egongo dira.</i>

2. Zenbait hiztunek, inguruko hizkuntzen eraginez, *zehir* postposizioa **NOREN** kasuarekin erabiltzen dute. Ikus dezagun erabilera oker honen zenbait adibide:

* <i>BasoAREN zehir etorri da.</i>	<i>BasoAN zehir etorri da.</i>
* <i>TxostenAREN zehir birritan aipatu du</i>	<i>TxostenEAN (zehir) birritan aipatu du.</i>

3. Zenbaitek, inguruko hizkuntzen eraginez, antza, “*nire ustez*” erabili beharrean *niretzat* erabiltzeko joera dauka. Esan beharra dago *niretzat* adizlaguna *norentzat?* galderari erantzuteko erabili behar dela, ez iritzi-adberbio gisa. Hona hemen zenbait adibide:

* <i>NIRETZAT, oso polita da.</i>	<i>NIRE USTEZ, oso polita da.</i>
* <i>ZURETZAT, zein da hobia?</i>	<i>ZURE IRITZIZ, zein da hobia?</i>
* <i>GURETZAT, arrazoia dauka.</i>	<i>GURE USTEZ, arrazoia dauka.</i>



ERE lokailuaren erabilera

ERE lokailuaren erabilera akats ugari egiten dira. Izan ere, lokailu honek erdaraz oso bestelako erabilera dauka. Okerrak, batik bat, **ERE** ez dagokion tokian jartzeagatik egiten dira. Adibidez:

*Mikel hemen dago ERE	Mikel ERE hemen dago
*Bihar joango gara ERE	Bihar ERE joango gara
*ERE Edurne etorriko da	Edurne ERE etorriko da

ERE lokailuak beti joan behar du erreferentziako osagaiaren atzean eta ondo-ondoan. Hortaz, ezin da hasieran edo bakarrik joan. Adibidez:

*Josuk ekarri du, ERE Jonek? **Josuk ekarri du, Jonek ERE BAI?**

ERE-ren erabilera dela eta, hona hemen kontuan hartu beharreko zenbait ohar:

- a) Zalantza izanez gero, lehenik eta behin perpausaren aditza agerian dagoen begiratu behar da. Agerian badago, ERE partikula bakarrik erabili behar da. Hau da, kasu horretan ez dira zuzenak ERE BAI, ERE EZ, BAITA...ERE eta EZTA...ERE. Adibidez:

*Nik ERE BAI egingo dut	Nik ERE egingo dut
*BAITA Txinara ERE joanen gara	Txinara ERE joanen gara
*EZTA nik ERE ez dut eginen	Nik ERE ez dut eginen
*Josune badator, zu ERE BAI etorriko zara?	Josune badator, zu ERE etorriko zara?

- b) Perpausaren aditza ezkutuan dagoenean, **ERE BAI, ERE EZ, BAITA...ERE** eta **EZTA...ERE** baliatu behar dira.

*Martak badaki, eta Raulek ERE	Martak badaki, eta Raulek ERE BAI (BAITA Raulek ERE)
*Zu ez bazoaz, ni ERE	Zu ez bazoaz, ni ERE EZ (EZTA ni ERE)



BAITA / EZTA formak erabiltzean ere akats ugari sortu ohi dira. Sarritan, **ERE** partikularen ondoan jartzen dira (Adib: **ni BAITA ERE*). Erabilera hau okerra da; izan ere, erreferentziako osagaia **ERE** lokailuaren aurrean kokatu behar da beti. Adibidez:

*Mikel antzokira joan da, BAITA ERE Koldo

*Mikel antzokira joan da, Koldo BAITA ERE

Bi hauek ez dira zuzenak. Honela behar du izan:

Mikel antzokira joan da, BAITA Koldo ERE

c) ERE partikula aditzekin erabiltzen denean ere, akats ugari sortu ohi dira. Adibidez:

*Pentsatu ez ezik, IDATZI dut ERE

Pentsatu ez ezik, IDATZI ERE EGIN dut

Pentsatu ez ezik, IDATZI ERE IDATZI dut

d) **ERE** partikularekin batera agertu ohi diren osagaiak (**bai, ez**) errepikatzea da maiz egin ohi diren hutsetako bat. Adibidez:

*EZTA pentsatu ERE EZ EZTA pentsatu ERE

*BAITA bihar bertan ERE BAI **BAITA bihar bertan ERE**

Ilari eta Entzi Zubiriren *Euskal gramatika osoa*
liburutik jaso eta moldatua



OHIKO AKATSAK: ARIKETAK

Ezer, inor, deus... + EZ partikula

A. Zuzen itzazu zuzendu beharrekoak

1. Ez al du inork gaintituko? Inork.
2. Horrek ez du ezertarako ere ez balio.
3. Zerbait erosi behar al duzu ? Ez, ezer.
4. Idoia bai alferra! Ez da ezertaz ere ez arduratzen.
5. -Zertan aritu zineten atzo? -Atzo? Ezertan ere.
6. Oihanak ez duela deus ez esan aitortu dit.
7. Etsita dago. Esaten du ez duela gaintituko inola ere ez.

B. Eman itzazu euskaraZ

1. ¿Qué has dicho? Nada.
2. ¿Quién ha venido? Nadie.
3. ¿A dónde irás? A ninguna parte.
4. ¿Con quién ha estado? Con nadie.
5. No hemos entendido nada.
6. No ha venido nadie.



Zenbait erdarakada

Eman itzazu euskaraz

1. El niño andará por ahí.
2. Estarán por ahí.
3. ¿Ander anda por ahí?
4. Ha venido a través del bosque.
5. A lo largo de esta semana algún día nos veremos.
6. Para nosotros, tiene razón.
7. Para tí, ¿cuál es la mejor?
8. Para mí, es muy bonito.
9. Hemos venido en avión.
10. En tren se va más rápido.
11. He venido en el coche de Jon.
12. Se ha ido en el tren de las siete.
13. Voy al dentista.
14. Vengo del médico.
15. He ido al abogado.



“Hobe, hobeki (hobeto)” formen erabilera

Eman itzazu euskaraz

1. Es mejor así.
2. Es mejor no ir.
3. Esto es mejor.
4. Tú has jugado mejor.
5. Trabajo mejor en casa.
6. Estos otros son mejores.

ERE lokailuaren erabilera

A. Zuzen itzazu zuzendu beharrekoak

1. Xabierrek ez dizu deitu ere iaztik.
2. Ez al du inork gaindituko? Inork.
3. Berandu ailegatu bada ere, ez diote errietarik egin.
4. Mikelek baita ere egingo ditu.
5. Entzun diot ere hori gezurra dela.
6. Hori esanda ere ez da konformatuko.
7. Burlatan badira ere tipo jatorrak, ez Atarrabian bakarrik.
8. Horrek ez du ezertarako ere ez balio.
9. Aste honetan ikasiko dugu ere ikasgai berria.
10. Guggenheimen Aitor egon zen ere.
11. Zerbait erosi behar al duzu? Ez, ezer.
12. Kolpe ederra harturik ere, Peruk ez du atzera egingo.



13. Louvrera joanez gero, ordaindu beharko duzue ere sarrera.
14. Dastatu nahi dugu ere Errioxako ardoa.
15. Idoia bai alferra! Ez da arduratzen ezertaz ere ez.
16. Zertan aritu zineten atzo? Atzo? Ezertan ere.
17. Eliasek hitz egin nahi du ere Idoiarekin.
18. Oihanak ez duela ezer ere ez esan aitortu dit.
19. Prontxio bai alferra! Ez da ezertaz arduratzen.
20. Etsita dago. Esaten du ez duela gaitutuko inola ere ez.

B. Eman itzazu euskaraz

1. Mikel también está aquí.
2. Mañana también iremos.
3. Lo ha traído Josune. También Jon.
4. Ana se ha ido a las tres, yo también.
5. Marta ya se va, también Raúl.
6. Si tú no te vas, yo tampoco.
7. Además de pensarlo, también lo he escrito.
9. ¡Ni pensarlo!